

Euskal irakurketa txoko edo klubak; euskaratik ala literaturatik gehiago?

Euskal literaturaren irakurzaletasuna izeneko ikastaroa abiatu zen atzo Bilboko Bidebarrieta liburutegian. Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari Ander Iturriotzek bere esperientziaz eta kargua hartu zuenean egindako zenbait Adierazpenek sortutako polemikaz hitz egin zuen.

ANE ARRUTI. Ez du bere burua idazletzat eta horregatik, Euskal Idazleen Elkartetik Ana Urkizaren deia jasotzeak harritu egin zuen. Hala aitortu zuen atzo Bizkaia Bilbao Arte eta Kultura (BizBAK) udako ikastaroetan eskaini zuen hitzaldian. Elkarteak dituen xedeak eta egiten dituen ekimenak ezagutu ondoren, ordea, bertan izena ematea erabaki zuen; "nahiz eta oraindik ere ez nuen nire burua idazletzat. Hala ere, bere esanetan, "Euskal Herrian idazle izatea ez da Alemanian Peter Hanke bat izatea. Konturatu nintzen lan kultural bat burutzeko elkartu zela talde bat eta horregatik onartu nuen.

Xede guztiak zilegi

Euskal irakurzaletasunaren egoeraz edo osasunaz galdegin zioten Iturriotzi hedabideetan. "Nik ez dut daturik hori neurtzeko, baina badira errealitatea diren beste fenomeno batzuk, eta hainbat adibide aipatu zituen: Ahotsenea, Literaturia, Eako poesia egunak, Armiarma, Hitzzen Uberan, 111 Akademia... eta irakurketa txokoak. "Hau oso bitxia da hizkuntza gutxitu batean, ez delako goitik sortzen, behetik baizik, erantsi zuen.

Zerrenda luzea da Euskal Herrian dauden irakurle txokoena eta, horiek nondik iritsi edo sortu diren aztertzen jarrita, gehienak euskara elkarteetatik jaiotakoak direla azpimarratu zuen Iturriotzek. "Honek zabaldu egiten du euskal literaturaren esparrua, gaineratu zuen.

Hitz horien harira "nahastu zen giroa. Zenbaitek "literaturari bakarrik begiratzen ziotela errepikatzen zuten bitartean, beste zenbaitek "euskararen normalizaziorako beste ekintza bat bezala hartu zuten txokoa sortzearena eta gero zaletu. Iturriotzen esanetan, "hemen badago soziologia politiko jakin bat eta, hori aintzat hartu gabe, ezin da ulertu euskal literaturarekiko irakurzaletasuna, ezin da ulertu bere osotasunean. Ez dut esan nahi honek dena esplikatzen duenik, baina, esango ez dudana da, literatur gozamenak ere dena esplikatzen duela, beste jende batek nahi zuen bezala.

Bere esanak argudiatzeko, iazko Literaturian elkartu ziren irakurle txoko ezberdinen adierazpen batzuk jarri zituen mahai gainean: "Literaturaz gozatu nahi dut, lagun arte atsegin batez halaber, "ikasi nahi dugu, pertsonalki edo profesionalki, gozatu eta sufritu, "euskal literatura ezagutu nahi dugu edo "euskararen normalizazioan eragin eta herrigintza zein kulturgintza jakin baten inguruabarrean txertatu gure jarduera. Ideia horien arabera, helburuak anitzak dira eta batzuek zehaztu egiten dute "euskal izaera.

"Euskaltasuna eta naziotasuna niretzat ezin dira bereizi, esan zuen Iturriotzek. "Nik ' herria ' ikusten nuen gehiegi eta badirudi kritika egin didatenen artean hori eragozpen bat dela, zikindu egiten duela literatura. Honek garbia behar du eurentzat, kartesia-noa. Kritika horiek "desleku kultural eta politiko batetik egiten direla erantsi zuen.

Bestalde, gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea eta idazleak aurrez aurre ezagutzea helburu duen "Idazleak eskolara" programatik Lakuako Hezkuntza Sailak, "egun batetik bestera eta abisatu gabe, 100.000 euro kendu zizkietela jakinarazi zuen. "Hala eta guztiz ere, 400dik gora saio egin ditugu eta 17.000 ikasletik gora izatera iritsi gara, zehaztu zuen, programarekin aurrera jarraituko dutela gaineratuta.